

Zuentzat



UXUE APAOLAZA LARREA

Araiak esan dit zuei idazteko. Esan dit, utzi baino lehen (aurten egingo dut), nire testu bat eraman nahi dizuela, nik ez dizuedala inoiz eraman, eta merezi duzuela, harro sentituko zaretela nitaz. Ezin da horrelako aukera bat galtzen utzi. Ez dakit jada esan ez dizuedan zer esan ahal dizuedan. Baina hor joan zaizkizue, zeharka, klasean erreparatzeko zehar estiloa, eta erlatibozko bat.

Araiak eta biok ikasle berberak ditugu Hernaniko AEKn. Nireak izan zineten, eta bereak zarete orain. Ez Araiak, ez nik, Hernanialdeko gure euskaltegiko batzuek bezala, ez dakigu oso ondo A1, B1, egiaztagitza, HABE... zer diren. Ez dakigu Arian zer den, ez dakigu etxean bakarka nola ikasi ahal den. Edo oso ondo dakigu, eta nahiago dugu ilehoriarena egin, burokrazia eta euskalgintza hiztegietatik harago bereizteko eguna iritsi arte. Dut-ka ibili zarete hiru urtez. Baina Araiak tresna hori aurten eman dizuen arren, guk hasieratik zaituztegu. Ikasi zaituztegu, entzunez, usainduz... Clara, Mireia, Noe; ikasi zaituztegu, begiratzuz, dastatuz... Maria eta Andoni; ikasten zaituztegu elkartuz eta elkartuz... Jessica, Khalil, Kevin, Jacinto, Nora...

Araiak eta biok badakigu jolasten. Araiak eta biok, berak hau idazteko eskatu didanean, ni idazten ari naizen bitartean, badakigu zuei esker garena. Araiak eta biok lasai utziko dugu lan hau larrua jotzearen (ipuin bat idaztearen) antzik ez duen egunean.

Euskaltegira sartu, eta gure begiradak gurutzatu ziren unetik beretik, Araiak eta biok biziki zaituztegu. Eskerrik asko, ekipo. ●

DESZAKUNDEA ORAIN!



MOTZEAN

Urretxindorra Ikastolako (Bilbo) eta Azkue Ikastolako (Lekeitio) bi irakasleren aurkako salaketak egin dituzte zenbait emakumek. Horren aurrean, Urretxindorra ikastolako irakasleak klase gehiago ez ematea erabaki du Ikastolen Elkarteak. Lekeitioiko irakaslea, berriz, erretiratuta dagoela azaldu dute.

Petrolio-ontzi batek 4.300 tona isuri ditu Itsaso Beltzean, eta beste bat noraezean dabil, astekari hau ixteko unean (abenduaren 16an). Ukrainak arduragabekeria egotzi dio Errusiarri.

ELB sindikatuak ardien mihi urdinaren eritasuna pairatu dutenendako elkartasunera deitu du. Abendu hastapenean, departamenduko 650 ardi etxalde hunkiak izan dira.

Iruñeko auzo guztietan euskarazko murgiltze eredia duten haur eskolak ipintzeko eskatu diote udalari. 12 haur eskola publiko daude Iruñean, eta bakarrean dago euskarazko eredia.

Hezkuntza publikoko lan baldintzak hobetzea aldarri, urtarrila-otsailean sindikatuak lau greba egunetara deitu dituzte irakasleak, haurreskolako langileak, sukaldariak eta garbitzaileak.